



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure taldearen, hau da, *Fast Slipt Up*aren helburua jendearen beharrak asetzeko, jendeari lagungarria egingo zaion produktu bat sortzea da jada asmatuta dagoen objektu bat transformatuz. Bezeroak edozein negozio-ereduren muina dira, izan ere, ez baita haiek gabe denbora luzez iraungo duen enpresarik". Hau da, merkatuan, erosleak (bezeroak) eta saltzaileak (ondasun/zerbitzuak) elkartzen dira. Horretarako, materiala murrizteko, pilulak apurtuko litukeen gailu berri bat sortuko dugu. Denok gaixo egoten eta gaizki sentitzen gara noizbait eta egoera horren aurrean, sendagaiak hartzen ditugu. Hainbat motatako sendagaiak daude; halere, erosoena edo arruntenak pilulak dira, baina, jende askok zailtasunak ditu horiek tragatzean, faktore asko direla medio: antsietatea, beldurra, etab. Horregatik, pilulak tragatzeko zailtasunak dituen edonor izan daiteke gure bezeroa, eta ondorioz, gure produktua gizartearen zati handi batentzat baliagarria izango dela esan dezakegu, galerarik izango ez dugula ziurtatuz.

Batetik, aipagarria da gure proiektuak ez duela adin-tarte mugaturik, izan ere, hamaika arrazoi daude pilulak ez hartzearen inguruan. Batetik, gazte gazteak diren horientzat, zenbait pilula oso handiak dira eta horregatik, zailtasunak izan ditzakete. Bestetik, adineko jendeak, dijeritzeko zailtasunak dituzten horretan, aukera paregabea da modu erraz batean hain beharrezkoak dituzten pilua horiek hartzeko. Beraz, laburbilduz, zailtasunak anitzak izan daitezke: batetik, arazoak izatea gorputzean eta horregatik pilula puska handiak ezin hartzea; eta bestetik, beldur izatea eta horiek hartzeko gai ez izatea. Horregatik guztiagatik, gure bezeroan edozein adineko pertsona izan daiteke.

Bestetik, bezeroen ezaugarriei dagokionez, nahiz eta edozein adineko pertsonak erabil ahal izango duten, aipagarria da gaixotasunak dituzten pertsonentzat oso erabilgarria izango dela. Izan ere, sarritan pilulak hartu behar dituztenek zailtasunak izan ditzakete horiek tragatzerako orduan. Horregatik, guk eskaintzen dugun produktuak beraien beharra asetuko luke, haien kasuan beharrezkoa baita pilulak hartzea, eta ondorioz, hein batean, haien ondoeza sendatzen lagunduko dugu, eta,



horregatik, askoren ongizatea bermatzen. Esan bezala, gure bezero gehienak gaixoak izango dira, eta horien artean gehien kontsumituko dutenak gure produktuak umeak eta adineko pertsonak izango dira. Horren arrazoia begi bistakoa da: haurrek ez dute heldu batek pilula bat irensteko duen gaitasun bera, eta horregatik, normalean pilula elikagai desberdinen artean jartzen zaie, jogurtak edo baita ogia ere. Bestalde, adineko pertsona batzuek, normalean beste norbaiten mendekoak direnek, arazoak izaten dituzte pastilla hori digestionatzeko eta irensten saiatzeko.

Azkenik, jakin beharra dugu gure enpresa merkatu-nitxoa dela, hau da, bezero oso zehatzak eta berezitutak dituen segmentua da gurea. Hemen, balorezko proposamenak, banaka kanalak eta bezeroarekiko harremanak hartzailearen neurrira diseinatuak egon behar dira.

Laburtuz, gure enpresa aurretik aipatutako ezaugarriak dituzten pertsonentzat bideratuta dago. Nagusiki gazte-gazteak eta adineko pertsonak gure bezeroak izango direnez, beraiek ahalik eta eskuragarritasun hoberena izatea dugu helburu.